



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA 2004ko irailaren 30eko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-P NV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

JON PERTIKA ATXA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauroi irailaren hogeita hamarreko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004KO EKAINAREN 28KO ETA UZTAILAREN 29KO OHIKO BILKUREN AKTAK ONESTEA:

Izenburuan aipatutako bilkurako aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, udalbatzaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **ahoko batez**, 2004ko ekainaren 28ko bilerako akta eta uztailaren 29ko akta onetsi ditu.

2º.- LAMIAKO-TXOPOETAKO BARNE BERRIKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZARAKO PLAN BEREZIAN (BBBPB) HUTSIK DAGOEN ARLOAREN HIRIGINTZA KUDEAKETA DESJABETZE SISTEMAREN BIDEZ BURUTZEKO ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN ADJUDIKAZIODUNA HAUTATZEKO ARDURA DUEN KONTRATAZIO MAHAIAREN ETA UDAL BULEGO TEKNIKOAREN PROPOSAMENA: 2004ko irailaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 662/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumenaren Informazio Batzordeak emandako 140 zenbakidun irizpenak, 2004ko irailaren 15ekoak, honako hau dio:

Batzordeko buruak kontratazio mahaiaren 4. bilkuraren edukiaren berri eman du; izan ere, kontratazio mahai horren ardura ondoko hauxe da: Lamiako-Txopoetako Barne Berrikuntza eta Birgaintzarako Plan Berezian (BBBPB) hutsik dagoen arloaren hirigintza kudeaketa desjabetze sistemaren bitartez burutzeko administrazio emakidaren adjudikazioduna aukeratzea.

Akta horrek ondoko hau adierazten du berbarik berba:

LAMIAKO-TXOPOETAKO BARNE BERRIKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZARAKO PLAN BEREZIAN (BBBPB) HUTSIK DAGOEN ARLOAREN HIRIGINTZA KUDEAKETA DESJABETZE SISTEMAREN BIDEZ BURUTZEKO ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN ADJUDIKAZIODUNA HAUTATZEKO ARDURA DUEN KONTRATAZIO MAHAIAREN 4. DEIALDIAREN AKTA

Data, eguna eta ordua: 2004ko irailaren 10ean, 10:00etan.

Tokia: udaletxeko batzorde aretoa.

Bertaratutakoak:

- Burua: Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jauna, Leioako Udaleko alkatea den aldetik.
- Kideak:
 - * Eneko Arruebarrena Elizondo jauna, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeko burua den aldetik.
 - * Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeko burua den aldetik. Uztailaren 20an bertaratu da, baina uztailaren 21ean ez.
 - * María Victoria Erkiaga Arangüena andrea, udal korporazioko idazkaria den aldetik.
 - * Angel Pérez Iniesta jauna, udal arkitektoa.
 - * Garbiñe Gochi Ibarra andrea, kontuhartzaitzako zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Bertaraturiko beste batzuk:
 - * Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jauna, Eusko Alkartasuna taldeko ordezkaria den aldetik.
 - * Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna, PP taldeko ordezkaria den aldetik.
- Idazkaria: Jon Bereziartua Rubio jauna, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeko idazkaria.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

EDUKIA

Jon Bereziartua Rubio eta Angel Pérez Iniesta jaunek “*Lamiako-Txopoetako BBBPB garatu eta kudeatzeko administrazio emakidaren adjudikaziorako aurkeztutako eskaintzen edukiari buruzko txostena*” izeneko agiria banatzeari ekin diote.

Horren ostean, udal teknikari biek agiriaren edukiaren laburpena egin dute ondoko ataletan banatuz:

BAREMOA: IRIZPIDE OROKORRAK.

Gogorarazi beharra dago lehiaketa publikoa arautzen dituen pleguen 37. klausulak modu honetara ezartzen dituela barematze irizpideak:

Letra	Kontzeptua	Baremoak
a	Burutzapen eta garapen programa	30 punturaino
b	Desjabetzea kudeatzeko taldea	30 punturaino
c	Eraikuntza eta urbanizazio taldea	10 punturaino
d	Kalitateei, eraikuntzari eta urbanizazioari buruzko memoria zehatza	10 punturaino
e	Higiezinak garatzeko eta kudeatzeko gaitasuna	5 punturaino
f	Hobekuntzak, alderdi berritzaileak eta abar	5 punturaino
	GUZTIRA	90 punturaino

Behin sei enpresek edo enpresa taldeek euren eskaintza zehatzak egitean lehenengo urratsa gainditu eta gero, eskaintzok neurtuko dira lanaren faseen gaineko azterlanari eta aurreko jardunetan izandako kudeaketa esperientziari lehentasuna emanez (90 puntuetik 60 puntu); **hau da, kontua ez da enpresarik prestigiotsuena edo kaudimendunena aukeratzea, ezpada ezaugarri mota hauetako jarduketa bat aurrera eramateko esperientziarik gehien duena hautatzea; izan ere, kaudimen ekonomikoaren irizpidea dagoeneko gainditu da lehiaketaren hasierako zatian. Baiezta daiteke enpresa guztiek eraiki eta urbanizatzeko behar besteko gaitasuna dutela, baina behar den moduan erakutsi beharra daukate jarduketa mota hau kudeatzeko gauza direla.**

Desjabetzea aurrera eramateko kudeaketa lanari dagokionez, erabaki, birralojamendu, negoziazio eta abarren arloan gaitasun eta esperientzia handia behar dira; beraz, kudeaketa hauek gauzatzeko azpikontrataturiko enpresen gaitasuna baloratu behar da edo zeregin horretaz arduratuko den enpresaren taldearen gaitasuna, baldin eta antzeko jarduketetan modu horretan jokatu badute.

Baldintza pleguari dagokionez, aipatzekoa den beste alderdi bat zera da: **jarduketa honi doi-doi eusten zaiola maila ekonomikoan, betiere ertaineko epean higiezin merkatuaren arriskuen menpe. Izan ere, azken emaitza modura BOEko proportzio handia dago (169 BOE guztira egingo diran 439 etxebizitzan aldean), 169 etxebizitza eta 21 lokal birkokatu behar dira eta hainbat tailer lurrera bota; horren ondorioz, hirigintzari buruzko arautegiaren arabera, Leioako Udalak eskubidez dagokion aprobeitxamenduaren %10 laga du urbanizazio zamatik libre eta edozein ekarkin ekonomikori egin dio uko; horrela egin ezean, enpresek kostuak ahalik eta gehien estatu beharko zituzten, ausarkeriaz ere bai. Esan nahi baita, udalak bermatu behar du jarduketa aurreikusitako moduan burutu eta gauzatea, betiere jarduketaren bideragarritasuna arrisku larrian jar dezaketean zama gehikuntzak baloratu barik (BOE edo tasaturiko etxebizitzan gehikuntza).**



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Zehatzago, baldintza pleguen 8. klausulak ondoko haxe ezartzen zuen:

“Leioako Udalak ez du merkatuko etekinik handiena atera gura hirigintza jarduketa honen bitartez, baizik eta modu egokian konpondu eremu horretako gizarte eta hirigintza hutsuneak, betiere eremu edo arlo horretako bideragarritasuna bultzatuz.

*Beste alde batetik, **jarduketa honi doi-doi eusten zaio maila ekonomikoan eta, nahiko luzatuko den ezkerro, merkatuaren gorabeheren menpe egongo da**; gainera, jarduketak zama handia dauka etxebizitzaren trukearen ondorioz, BOE jarduketa dela-eta lurrera bota beharreko lokalen ondorioz eta eraiki beharreko lokalen ondorioz. Gauzak horrela, helburu nagusia da jarduketa berme eta kalitate egokiekin gauzatzea; horretarako, ulertu beharra dago kontra-partida ekonomiko handia eskatzeak edota babespeko etxebizitzak, tasatuak eta abar gehitzeak enpresa arriskuak handitzea dakartela eta horiek jarduketa guztia jar dezaketela arriskuan.*

Hori guztiori dela eta, Leioako Udalak uko egiten dio administrazio honek apirilaren 20ko 11/98 Legearen arabera duen eskubide bati, hots, urbanizazio zametatik libre egon beharko lukeen %10eko lagapenari.”

Aurreko lerroaldean adierazitakoak are garrantzi handiagoa hartzen du; izan ere, **ez dago jakiterik zein izango den lurzoruaren balioa eta hori jarduketaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten dion oinarritzko parametroa da.**

BURUTZAPEN ETA GARAPEN PROGRAMA

(Baremoak ezartzeko irizpide hau udal teknikariak eta hirigintza teknikariak batera ebaluatu dute)

Aurkeztuak izan diren hurrenkerarekin bat etorritik, eskaintzen edukiaren laburpena ondoko haxe da:

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa) CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A. LANDU PROMOZIOAK S.L. CONSTRUCCIONES LAUKI S.A.

JARDUKETA	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	52 BOE	40 EL 35 BOE	15 BOE	113 EL	117 BOE 67 EL
	169 BOE eta 270 EL				
1. FASEA	4. jarduketaren ondorioz ukitutako hainbati behin-behineko alojamendua eman behar zaie.				
	52 BOE	----	----	80 EL	117 BOE
	Ukitutako 169 pertsoneri behin behineko alojamendua eman behar zaie				
2. FASEA	----	40 EL 35 BOE	15 BOE	33 EL	67 EL



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Honek lau familiari behin-behineko alojamendua ematea dakar.

Hobekuntzak:

- BOEen %10 gehiago doan.
- Gerta liteke behin-behineko alojamendua emango zaien familiak BOEetako gutxieneko modulua baino azalera txikiagoa duten etxebizitzetan kokatzea; halako kasuetan, ahaleginak egingo dira birralojamenduko etxebizitzan modulu horretara ailegatzeko beharrezko azaleraren gaindikina ez ordaintzeko.
- Notario eta erregistro kostuak.
- Lurrera bota beharreko metro karratuei ezarri ahal zaio BEZ enpresaren kontura.
- Azken jarduketan BOEetako %50 eta ELko %50 izango dira, modu honetara:

KONTZEPTUA	KOPURUA
BOE	219
EL	220
GUZTIRA	439

BIZKAI EDER-BILBO EDER TALDEA
BIZKAI EDER 2000, S.L. (eskabidearen titularra)
BILBO EDER, S.A. (lotutako enpresa)
BIZKAI EDER, S.A. (lotutako enpresa)

(Oinarrizko eskaintza bat aurkeztu du eta aldaera bi)

Oinarrizko eskaintza

JARDUKETA	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	52 EL	75 EL	15 EL	113 EL	169 BOE 15 ET
	169 BOE, 15 ET eta 255 EL				
1. FASEA	52 EL	----	----	----	92 BOE
	Ukitutako 92 pertsona emango zaie behin-behineko alojamendua				
2. FASEA	----	----	15 EL	113 EL	77 BOE 15 ET
	Ukitutako gainerakoei emango zaien behi-behineko alojamendua (77)				
3. FASEA	----	75 EL	----	----	----

1. aldaera

Oinarrizko eskaintzatik abiatuta, lurren jabeekin adiskidantzazko akordioak berehala lortzeko aldaera sartzen da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

2. aldaera

JARDUKET A	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	52 EL	75 EL	15 EL	113 EL	169 BOE 15 ET
169 BOE, 15 ET eta 255 EL					
1. FASEA	52 EL	----	----	----	169 BOE 15 ET
Ukitutako 169 pertsonari alojamendua emango zaie					
2. FASEA	----	75 EL	15 EL	113 EL	----

Hamalau familiari behin-behineko alojamendua eman beharko zaie.

Hobekuntzak:

- Alojamendua eman behar zaien familien metro karratuak trukatzean eskuzabaltasunez jokatzeari; gauzak horrela, familia horiei ezelako kostu barik BOEko etxebizitza berri bat bermatuko zaie; etxebizitza horrek gaur egun dituzten gela berberak izango ditu. Elkarbizitza unitateak etxebizitza handiagoa nahi badu, metro karratuen gehikuntza hori ordaindu behar izango du.
- Trukaturiko BEZaren zatia.
- Lekualdaketa gastuak eta sukaldearen instalazioa.
- Talde eskultoriko bat jartzea.

BRUESA

JARDUKETAK	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	52 BOE	55 EL 20 ET	15 EL	50 EL 63 EL	50 BOE 67 BOE 67 EL
169 BOE, 20 ET eta 250 EL					
1. FASEA	----	----	----	50 EL	50 BOE
Ukitutako 50 pertsonari alojamendua ematea					
2. FASEA	52 BOE	----	----	63 EL	67 BOE 67 EL
Ukitutako gainerakoei alojamendua ematea (119)					
3. FASEA	----	55 EL 20 ET	15 EL	----	----

Eskaintza hau behin-behineko alojamendu barik aurkeztu da.

Hobekuntzak:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Alojamiento eman behar zaienei metro karratuen %20 gehiago eskainiko zaie kosturik gabe, bai eta garajea eta trastelekua ere.
- Lekualdaketa gastuak.
- Alojamiento eman behar zaienei ez zaie kontuan egin beharreko ordainketarik eskatuko, baldin eta azaleraren %120tik gorakoak izango diren BOEko etxebizitzaren bitartez akordio bat lortzen bada.
- Sukaldeko ekipamendua.
- Leioako Udalari 214.170,00 euroko ekarkin bat egingo zaio, finkatutako eremua eraberritzeko fondo baterako.

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
METROVACESA S.A.
JAUREGUIZHAR P.G.I., S.L.

JARDUKETA	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	62 BOE	75 EL	15 EL	107 BOE	180 EL
	169 BOE eta 270 EL				
1. FASEA	4. eta 5. eraikinak egiteko, ukitutako pertsoneri behin-behineko alojamiento emango zaie				
	62 BOE	----	----	107 BOE	180 EL
	Ukitutako 169 pertsoneri behin betiko alojamiento emango zaie				
2. FASEA	----	75 EL	15 EL	----	----

Aldi baterako alojamientoak berrogei dira.

Hobekuntzak:

- Alojamiento eman behar zaienei BOEko etxebizitza osoak eskainiko zaizkie espazio bizigarrien kopuruaren beharrezko programari lotuta. Elkarbizitza unitateak BOE handiagoak behar baditu, metro karratu horiek ordaindu behar izango ditu.
- Lekualdaketa gastuak.

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
CNES. MOYUA S.A.
NEINOR S.A.

JARDUKETA	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	60 BOE	75 EL	15 EL	109 BOE	180 EL
	169 BOE eta 270 EL				
1. FASEA	60 BOE	----	----	----	----
	Ukitutako 60 pertsoneri eman behar zaie alojamientoa				



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

2. FASEA	----	-----	-----	109 BOE	180 EL
Ukitutako gainerako pertsoneri eman behar zaie alojamendua (109)					
3. FASEA	----	75 EL	15 EL	----	----

Ez dago aldi baterako alojamendurik.

Hobekuntzak:

- Talde eskultoriko bat jartzea.

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
VALLEHERMOSO DIVISIÓN PROMOCION S.A.U.
CONSTRUCCIONES ACR, S.A.

JARDUKETA	1	2	3	4	5
Etxebizitza kop. eta mota	66 BOE	55 BOE 20 EL	15 EL	48 BOE 69 EL	166 EL
169 BOE eta 270 EL					
1. FASEA	Plangintza xehekapen azterlan bitartez aldarazten da 4. eta 5. eraikinek ukitutako pertsoneri behin-behineko alojamendua eman beharko zaie				
	66 BOE	----	----	48 BOE	166 EL
Ukitutako 114 pertsoneri eman beharko zaie alojamendua					
2. FASEA	----	55 BOE 20 EL	15 EL	69 EL	----
Ukitutako gainerako pertsoneri eman beharko zaie alojamendua (55)					

1. fasean 23 familiari behin-behineko alojamendua emateko beharra eta 2. fasean beste 23ri.

Hobekuntzak:

- Alojamentuak emateko irizpideak ezartzean, eskuzabaltasunez jokatuko dutela adierazten dute.

Atal hau baloratzeko irizpideak.

Eskaintzen edukia aztertu eta gero, udal teknikariek hiru irizpide hartu dituzte atal hau baloratu ahal izateko:

1.- Bi edo hiru faseko garapena: enpresek euren eskaintzetan adierazten dutena gorabehera, agiriko gauza da jarduketa fase bitan garatuz gero denbora tartea nahiko murriztuko dela (gutxi gorabehera 90 hilabetetik 65 hilabetera). Hiru faseko garapena ez da onargarria urte bi gehiagoko denbora tartea dakarrelako, obra horiek auzokoei dakarzkien trabak ahaztu barik.

2.- Jarduketa osoen garapena: Ez da egokitzat jotzen jarduketak banatzea, obren hurbiltasunagatiko eta kudeaketaren zatiketagatiko trabak modu negatiboan hartzen direlako.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

3.- BOEak lehenengo faseak amaitzea ekarriko duen garapena: Lehentasunezkoztat jotzen da BOEak lehenengo fasean amaitzea ekarriko duen garapena ontzat ematea; izan ere, modu horretara alojamenduen gaineko espedientearen zatiari behin batean baino ez zaio aurre egin beharko. Hau da, aldi baterako alojamenduen arazoa txikiagoa da etxebizitza mota horiek guztiak lehentasunez kontuan hartuko dituzten eraikuntzen bitartez kudeaketa epea laburtzeko aukerarekin alderatuz gero.

Oharrak:

- Eskaintza guztietan (eta eskertzekoa da) ukitutako familiekiko negoziazioan eskuzabaltasunez jokatu behar dela adierazten da, nahiz eta atal horretan baremo zehatzik ezarrita egon ez.

- Baldintza pleguak ezarritakoarekin bat, ez dira baloratzen etxebizitza tasatuen eskaintza, BOEak gehitzea edo ekarkin ekonomikoak.

- Garajea eta trastelekua emateko eskaintza zuhurtziaz hartu beharra dago, baldin eta horrek jarduketari dakartzkion arrisku ekonomikoak kontuan hartzen badira.

Horren ondorioz, atal honetan puntuen ondoko banaketa hau proposatzen da:

PUNTUA K	ENPRESA	ARRAZOIAK
30	<u>BIZKAI EDER-BILBO EDER TALDEA</u> BIZKAI EDER 2000 S.L. (Eskabidearen titularra) BILBO EDER S.A. (Lotutako enpresa) BIZKAI EDER S.A. (Lotutako enpresa) METROVACESA S.A. enpresak eta JAUREGUIZHAR P.G.I., S.L. enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE)	Hiru irizpide betetzen dira.
20	CNES. AMENABAR S.A. enpresak, LANDU PROMOZIAK S.L. enpresak eta CNES. LAUKI S.A. enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE)	Bi irizpide betetzen dira
10	BRUESA CNES. MOYUA S.A. enpresak eta NEINOR S.A. enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE) VALLEHERMOSO DIVISIÓN PROMOCION S.A.U. enpresak eta CNES. ACR S.A. enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE)	Irizpide bat betetzen da edo bakar bat ere ez.

DESJABETZEKO KUDEAKETA TALDEA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

(Hirigintza teknikariak ebaluatu du baremoen irizpide hau)

Enpresak zerrendatuta ageri dira aurreko lerroaldean bezala:

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
CNES. AMENABAR S.A.
LANDU PROMOZIOAK S.L.
CONSTRUCCIONES LAUKI S.A.

Ez dauka esperientziarik antzeko jarduketetan (auzo degradatu batean etxeak lurrera botatzea eta alojamendu berri asko dakartzan desjabetze publikoa).

BIZKAI EDER-BILBO EDER TALDEA
BIZKAI EDER 2000, S.L. (Eskabidearen titularra)
BILBO EDER S.A. (Lotutako enpresa)
BIZKAI EDER S.A. (Lotutako enpresa)

Enpresa talde honek desjabetzea kudeatzeko AYTASA enpresa azpikontratatu du. Enpresa hori merkataritza erakundea da eta lan mota hauen kasuan kudeaketa osoa egiten du (negoiazioa, balorazioa, topografia, desjabetze espediente batean beharrezkoa izaten den dokumentazioa idaztea, legeei buruzko aholkularitza eta abar).

Esperientzia handia dauka erakunde publikoen kasuan (lehiaketa publiko bitartez adjudikaturiko kontratuak) nahiz enpresa pribatuen kasuan. Edozein kasutan ere, txosten honen ondoretarako, Lamiako-Txopoetako BBBPBn planteaturiko jarduketaren antzeko lanei men egiten dieten erreferentziak baino ez dira aipatuko:

- **Santurtziko Udala-Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila:** Santurtziko San Joan auzoan izandako nahitaezko desjabetzeari buruzko espedientea eta legezko egoiliarrei Eusko Jaurlaritzak Kabiezes auzoko goialdean eraikitako etxebizitzetan alojamendua eman izana.
Espedienteak: 321 (jabe egoiliarak: 115; maizter-egoiliarak: 84; bizi ez ziren jabeak: 115; merkataritza lokaletako jabeak: 7).
- **Sestaoko Udala-Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila:** Rivas eta Chavarri kaleetan izandako nahitaezko desjabetze espedientea eta legezko egoiliarrei Eusko Jaurlaritzak eremu berean eraikitako etxebizitzetan alojamendua eman izana.
Espedienteak: 103 etxebizitza eta 25 merkataritza lokal.
- **Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila:** Bilbo Zaharrean izandako nahitaezko desjabetze espedientea eta legezko egoiliarrei Eusko Jaurlaritzak Mirivilla auzoan eraikitako etxebizitzetan alojamendua eman izana (gaur egunean tramitatzen ari da).
Espedientea: 152 etxebizitza eta 18 merkataritza lokal.

BRUESA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Kudeaketa jarduketan zerrenda bat aurkeztu du. Gainerako eskaintzetan bezala, bakar-bakarrik hartuko dira kontuan jarduketan honen antzekoak direnak, nahiz eta dimentsio txikiagokoak izan.

Ildo honi jarraituz, kontuan hartzekoak dira Barakaldoko eremu bitan izandako eraikuntza lanak; eremuen izenak "SSU-02-La Siebe" eta "SSU-04-Dinamita" dira eta alojamenduen kopurua 100 ingurukoa izan zen.

Kudeaketa lana enpresako langileek eurek bideratzen dute; izan ere, Bruesa taldearen zati bat gai zehatz honetan espezializatu da.

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
METROVACESA S.A.
JAUREGUIZHAR P.G.I., S.L.

Oraingoaren antzeko jarduketa modura Bilboko Gas Plazakoa zehaztu du; jarduketa horretan 58 etxebizitzari berri ere eman behar izan zitzaion alojamendua. Kudeaketa lanak enpresako langileen bitartez bideratu ziren.

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
CNES. MOYUA S.A.
NEINOR S.A.

Kudeaketaz arduratzen den taldearen esperientziarik azpimarragarriena Bilboko Zazpi Kaleetako 509.0 jardununearen kudeaketa lana (Hermanitas de Los Pobres) izan zen, desjabetze sistemaren bitartez gauzaturakoa; zeregin horretan 52 etxebizitzari eta 10 jarduerari eman behar izan zitzaion alojamendua.

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa)
VALLEHERMOSO DIVISION PROMOCIONES S.A.U.
CONSTRUCCIONES ACR, S.A.

Kudeaketa lanak egiteko azpikontrataturiko enpresa LURTEK izan zen. Enpresa horrek ez du alojamenduen gaineko historialik eman, ezpada jarduketa mota horien osagaiak izan diren hainbat lanen gaineko curriculuma, bai eta beste merkataritza erakundeen bitartez alojamendu jarduketa batzuetan egindako lanena ere. Edozein kasutan ere, Arrigorriagan izandako jarduketa bat gorabehera, historialean ikus daiteke orain arte egindako desjabetze jarduketek ez dutela antzik BBBPB honetako ezaugarriekin (Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoarentzako lanak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan Saila, AENA, Estatuko Errepide Saila).

Eskaintzak aurkeztu osteko elkarrizketetan LURTEK enpresari itaundu zitzaion zein zen alojamenduen arloan egindako desjabetze jarduketarik handiena; erantzuna izan zen Arrigorriagan 35 eraisketatan parte hartu zuela gutxi gorabehera.

Era berean, kontuan hartzekoa da enpresa honetan Barakaldoko Beurko auzoko jarduketa kudeatu zuen taldeko letratu bat dagoela.

BBBPBaren antzeko jarduketetan desjabetze kudeaketa osoak izandako parte-hartzerik garrantzitsuenen berri eman eta gero (aldaera hau oinarri-oinarrizkoa da eta baldintza pleguaren arabera neurtu beharra dago), ondoko balorazio hau proposatzen da atal honen kasuan:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PUNTUAK	ENPRESAK
30	BIZKAI EDER-BILBAO EDER TALDEA Bizkai Eder 2000, S.L. (Eskabidearen titularra) Bilbo Eder S.A. (Lotutako enpresa) Bizkai Eder S.A. (Lotutako enpresa)
25	BRUESA
20	METROVACESA S.A enpresak eta JAUREGUIZHAR P.G.I. S.L enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE) . CNES. MOYUA S.A. enpresak eta NEINOR S.A enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE).
18	VALLEHERMOSO DIVISION PROMOCION S.A.U. enpresak eta CNES. ACR S.A. enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE)
10	CNES. AMENABAR S.A. – LANDU PROMOZIOAK S.L. enpresak eta CNES. LAUKI S.A. enpresak osatutako enpresen aldi baterako elkarketa (EABE)

ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIO TALDEA

(Udal arkitektoak neurtutako atala).

Behin lehiaketara aurkeztutako profesionalen historialak aztertu eta gero, irizpide hau modu honetara neurtu da:

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa) CNES. AMENABAR S.A. (%25) LANDU PROMOZIOAK (%25) CNES. LAUKI S.A. (%50)	8
BIZKAI EDER-BILBO EDER TALDEA BIZKAI EDER 2000 S.L. (Eskabidearen titularra) BILBO EDER S.A. (Lotutako enpresa) BIZKAI EDER S.A. (Lotutako enpresa)	8
BRUESA	8
EABE (enpresen aldi baterako elkarketa) METROVACESA S.A. %810) JAUREGUIZHAR P.G.I., S.L. (%90)	8
EABE (enpresen aldi baterako elkarketa) CNES. MOYUA S.A. (%50) NEINOR S.A. (%50)	10



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EABE (enpresen aldi baterako elkarketa) VALLEHERMOSO DIVISION PROMOCION S.A.U. (%50) CNES. ACR S.A. (%50)	10
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----

ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIO KALITATEEN GAINEKO MEMORIA ZEHATZA

(Udal arkitektoak neurtutako irizpidea)

Eskaintza bakoitzari 10 puntu ematen zaizkio.

ETXEBIZITZAK GARATU ETA KUDEATZEKO GAITASUNA

(Hirigintzako teknikari jaunak neurtutako irizpidea)

Eskaintzak aurkeztu dituzten enpresa talde guztiek etxebizitzak garatzeko gaitasun handia daukatela pentsatzen da; horrenbestez, bakoitzari 5 puntu ematea proposatzen da.

ESKAINZA OSOARI EGINDAKO HOBEEKUNTZAK, ALDERDI BERRITZAILEAK ETA ABAR

Eskaintzetan egindako alderdi berritzaileak ez dute aparteko puntuaziorik merezi; izan ere, eskaintzei egindako hobekuntza zehatzak jadanik zenbatuak izan dira bakoitzari dagokion atalean.

Hori guztiori dela eta, atal honetan puntuaziorik ez ematea proposatzen da.

Balorazioaren emaitza legez, udal teknikariek kontratazio mahaiari proposatu diote ondoren ageri den taula-laburpena kontuan hartzeko; horrela bada, administrazio emakida hau Bilbo Eder S.A. eta Bizkai Eder S.A. merkataritza erakundeei lotutako Bizkai Eder 2000 S.L. enpresari esleitzea proposatu da, betiere eskaintzaren 2. aldaeran.

Kontratazio mahaiak udal bulego teknikoak egindako txostenaren edukia oso-osoan kontuan hartzeko erabakia hartu du; horrela bada, udalaren osoko bilkurari proposatuko dio administrazio emakida hau Bilbo Eder S.A. eta Bizkai Eder S.A. merkataritza erakundeei lotutako Bizkai Eder 2000 S.L. enpresari esleitzea, betiere eskaintzaren 2. aldaeran.

Xabier Olabarrieta Arnaiz txosten-proposamenaren jakinaren ganean geratu eta bere iritzia osoko bilkuran azalduko du.

NEURTUTAKO ESKAINTZEN LABURPEN TAULA

	BURUTZAPEN ETA GARAPEN PROGRAMA	DESJABETZEA KUDEATZEKO TALDEA	ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIO TALDEA	ERAIKI ETA URBANIZATZEKO KALITATEEN GAINEKO MEMORIA ZEHATZA	ETXEBIZITZAK GARATU ETA KUDEATZEKO GAITASUNA	HOBEEKUNTZAK, ALDERDI BERRITZAILEAK ETA ABAR.	GUZTIRA
EABE CNES. AMENABAR S.A. (%25) LANDU PROMOZIOAK (%25) CNES. LAUKI S.A. (%50)	20	10	8	10	5	---	53
BIZKAI EDER-BILBO							



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EDER TALDEA BIZKAI EDER 2000 S.L. BILBO EDER S.A. BIZKAI EDER S.A.	30	30	8	10	5	---	83
BRUESA	10	25	8	10	5	---	58
EABE METROVACESA S.A. %810) JAUREGUIZAHAR P.G.I., S.L. (%90)	30	20	8	10	5	---	73
EABE CNES. MOYUA S.A. (%50) NEINOR S.A. (%50)	10	20	10	10	5	---	55
EABE VALLEHERMOSO DIVISION PROMOCION S.A.U. (%50) CNES. ACR S.A. (%50)	10	18	10	10	5	---	53

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak **espedientea udalaren osoko bilkurara bidaltzeko irizpena egin du, ondoko proposamenak eginda:**

- **Udal zerbitzu teknikoek enpresen proposamenen inguruan egindako txostena eta kontratazio mahaiaren aktaren edukia oso-osoan berrestea; horren bitartez, Lamiako-Txopoetako Barne Berrikuntza eta Birgaikuntzarako Plan Berezia (BBBPB) egin barik dagoen arloa hirigintza aldetik eta desjabetze sistemaren bitartez kudeatzeko administrazio emakida hau Bilbo Eder S.A. eta Bizkai Eder S.A. merkataritza erakundeei lotutako Bizkai Eder 2000 S.L. enpresari esleitzeko irizpena ematen da. Enpresa horri, bada, aurkeztutako 2. aldaera esleitzen zaio.**
- **Lizitazio-egileek emandako behin-behineko bermeak itzultzeari ekitea, enpresa adjudikaziodunarena izan ezik; azken enpresa honi agin-deia egingo zaio 4.400.000,00 euroko behin betiko bermea osa dezan eta 17.600.000.00 euroko berme osagarria egin dezan.**
- **Enpresa adjudikaziodunari agin-deia egitea kontratua sinatu aurretik Administrazio eta Ekonomi Baldintzen Pleguaren 13. klausulan jasotako aseguru polizak aurkez ditzan.**
- **Ebazpen hau enpresa lizitazio-egileei jakinaraztea, jakinaren ganean egon eta beharrezko ondoreak ekar ditzan.**
- **Adjudikazio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta DOCEn argitaratzea.**

EAJ/PNV eta EAko ordezkariak bat datoz kontratazio mahaiak egindako proposamenarekin.

PSE/EE/PSOeko zinegotziak ere bat datoz proposamenarekin, udal teknikariengan duten konfiantza kontuan harturik.

PPko zinegotzia jakinaren ganean geratu da eta alojamentuak bloke bakarrean egiteak dakarkion kezka azaldu du. Edozein kasutan ere, zinegotziaren taldeak bere iritzia emango du osoko bilkuran.

EZKER BATUA-BERDEAK taldeko ordezkaria jakinaren ganean geratu da eta bere jarrera osoko bilkuran azalduko duela aipatu du. Edonola ere, baldintza pleguan sarturiko baremoekin eta horien aplikazioarekin ez datorrela bat adierazi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

EBAZPENA

GOBERNU BATZORDEAK eta ALKATETZAK aurreko irizpena berretsi dute; horrenbestez, gai hau udalak egin beharreko hurrengo osoko bilkuran eztabaidatu behar izango da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia jaunak honako hau adierazi du:

Ez dela asko luzatuko adierazi du, BBBPBaren ibilbide osoa azaldu gura ez duelako; horrela, gogorarazi nahi du euren ustez prozesuaren hasiera ez zela zuzena izan, oinarrietan jasotzen ez zelako BBBPNeko alojamendukoak ez ziren etxebizitza berriak eskuratzeko erregimena eta oinarrietan baloratu ez zelako horiek hobetzeko hainbat kasu. Izan ere, beraren ustez, oinarriek deialdian gauza gehiago eska zitzaketen. Horri dagokionez, adierazi du BBBPN honen zailtasunen ondorioz lizitazio-egileak lehiaketara ez aurkezteko beldurra uxatua izan dela eskaintzen kopurua ikusi eta gero, bai lizitazio-egileen kopuruari bai kalitateari dagokionez; horrexegatik uste dute aukera interesgarria zela oinarrietan jasotzea alojamenduetatik aparte Lamiakon egin beharreko etxebizitza berri guztiak libreak ez izateko baldintza.

PP taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honako hau adierazi du:

Bulego teknikoak beharrezko txostenaren bitartez eta kontratazio mahaiak egindako proposamenaren alde agertuko direla adierazi du, BBBPBko proiektuaren kudeaketa lanaz Bizkai Eder - Bilbo Eder taldea ardura dadin; izan ere, euren ustez, aukeraketa modu zuzen eta gardenean egin da eta, ildo horri jarraituz, udal teknikariek txostenen bitartez egindako lana kontuan hartu nahi dute eta sinistuta daude egin den lana BBBPB aurrera eramateko eskaintza teknikorik onena aukeratzeko izan zela.

Alde horretatik, konfiantza osoa dute txostenaren edukian eta espero dute orain hasi den prozesua modu egokian amaitzea Lamiako auzoarentzat eta bertako auzokideentzat eta urte gutxi barru inguru horrek bizi kalitate hobea eskaintzea.

PSE-EE-PSOE taldeko Susana González Rómulo andreak honako hau adierazi du:

Adierazi du Hirigintza Batzordean zehaztu zuela ez zekiela oso ondo ea une hori BBBPBren amaiera zen edo hasiera; horrela, batzorde horretako Jon Bereziartua teknikariak zehaztu zuen bere ustez amaieraren hasieran zeudela eta, haren ustez, horixe da adierazpiderik zuzenena. Gauzak horrela, adierazi zuen agiriko gauza dela zehaztea proiektu hau ez dela gobernu talde zehatz bakar baten lana; izan ere, proiektuan talde politikorik gehienek eta korporazio askok lan ordu ugari sartu dituzte; izan ere, berak 10 urte egin ditu udalean eta, sartu zenean, jada BBBPB hau lantzen ari ziren; beraz, BBBPB hau sozialisten ekarpena ere badela uste du. Jarraian aipatu du orain teknikariek egindako txostenari oniritzia emango diotela eta, PPko bozeramaileak zehaztu bezala, lana eskertu eta zorionak eman behar zaizkiela; gauzak horrela, oraingoan ahalegindu beharra dago urte batzuk barru Lamiako guztiok nahi dugun Lamiako izan dadin.

EA taldeko Ernesto Ángel Trigueros S. Coloma jaunak honako hau adierazi du:

Adierazi du jarduketa honetan beste guztiekin batera parte hartu izana eskertzen duela, nahiz eta berak proiektu hau azken urte bietan besterik ikusi ez duen; dena dela, prozesua aurrera eramateko modua bat dator EAren pentsamoldearekin; izan ere, lana gardentasunez bideratu da eta udaleko zinegotziek parte hartzeko erakutsi duten garbitasunarekin ere bat dator; hori guztiori dela eta, aldeko botoa emango du.

EAJ-PNV taldeko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honako hau adierazi du:

Adierazi du beraren berbek beste talde guztiek esandakoaren ildoari jarraituko diotela; hori dela eta, ez du BBBPBari buruzko azalpen teknikoegirik egin nahi. Horri dagokionez, aipatu du Leioa



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

irakiten dagoen udalerrria dela eta hiri garapena aurrera eramateko makina bat proiektu dagoela; hiri garapen horietariko batzuk errazak dira, beste batzuk zailagoak eta beste hainbat ia-ia ezinezkoak. Gauzak horrela, adierazi du berak hirigintzako udal teknikariei beti esan diela egunen batean lemaren bat jarri beharko dutela ezinezkoa segituan egiteko gauza direla adierazteko eta mirariak zailak direla esateko, baina batzuk egin egiten direla.

Hala, jarraitu du esaten BBBPBa mirari baten zatia dela eta Leioan eta Lamiako auzoan duela 20 urtetik hona BBBPBaren inguruan berba egiten entzun dela eta askotan berba egiten zela BBBPB horren berri izan barik, baina plana sakralizatuz BBBPB hori totem baten antzera hartzen zelako; edozelan ere, ahalegin askoren ostean, proiektua errealitate bihurtu da, besteak beste, Lamiakoko bideak bereizi eta Langileria kalea zabaldu zelako; jarduketa horiek BBBPBren hasieratzat har daitezke, horiek egin barik ameskeria zelako BBBPBren inguruan hitz egitea. Laburbilduz, esan daiteke Leioan historia egiten dabilzala. Horri buruz zehaztu du ederto gogoratzen dela 99ko hauteskunde kanpainan José Manuel Urbietta hirigintza buruak BBBPBren lehenengo planoak aurkeztu zizkiela, azkenik Lamiakoko BBBPB burutu ahal izango zela esanez.

Horren ostean, adierazi du, PSE-EE-PSOEko bozeramaileak zehaztu bezala, amaieraren hasieran gaudela, prozesua oso luzea izan delako; horrela, eskerrak eman behar zaizkie BBBPBan sinistu zuten lehenengoei, hau da, Ángel Pérez Iniesta eta Jon Bereziartua Rubio udal teknikariei; izan ere, teknikariok plangintzaren fase guztietan hartu dute parte, bai eta BBBPBren adjudikazioan ere, eta euren izenak urrezko letraz zizelatu beharko liriateke Lamiakon eta seguru antzean euren omenezko pare bat estatua egin, azkenean BBBPB hori aurrera eramaten bada. Horren inguruan, bada, adierazi du Jon Bereziartua Rubiok esan ohi duela jubilatutako nahi lukeela Lamiakoko BBBPB eginda ikusi eta gero. Aldi berean, saileko langileak ere zoriondu gura izan ditu: delineatzaileak, administrariak, udal idazkaritza orokorreko langile guztiak eta abar.

Azkenik, talde politiko guztien erantzukizuna eskertu du BBBPB aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa izan delako nolabaiteko adostasuna, bai eta benetako laguntza ere, puntu honetan onetsiko den erabakia proposatu ahal izateko. Horri dagokionez, zehaztu du lana orain hasiko dela, BBBPB hirigintza arloko ebakuntza bat delako; beraz, jarduketa hori askoz zailagoa izango zen taldeen arteko adostasunik egon izan ez balitz.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

Adierazi du BBBPB garatzeko jarrera eta gogo honi eutsi behar zaiola eta, PSE-EE-PSOEko bozeramaileak adierazi duen legez, plana guztiona dela. Aldi berean, zehaztu du Ezker Batua taldekoa ere badela eta erakunde honetako bozeramaileari eskertu dio azalpen zatian erabilitako hizkera.

Azkenik, amaitu nahi izan du oraindik ere aurrera eroateko lan handia dagoela zehaztuz eta horretan elkarrekin jarraitu beharko dutela, beti bat etorri ez arren.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia jaunak honako hau adierazi du:

Adierazi du kontrako botoa emango dutela, prozesuari boikota egingo ez diotelako eta BBBPB arriskuan jarriko ez dutelako. Era berean, zehaztu du beste batzuetan abstenitu direla gaiaren mamiarekin bat etorri direlako, baina uste zutelako prozedurak eta kudeaketa hobetzeko modukoak zirelako; horixe izan da prozesu honetan hobetu eta aldarazi nahi izan dutena: adjudikazioa bideratzeko modua, baremoak eta beste finantziario bide batzuk kontuan hartzea.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemeretzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzietan, PSE-EE-PSOEko lau zinegotzietan, PPko lau zinegotzietan eta EAko zinegotziarena. Era berean, kontrako boto bi izan dira, EB-Berdeak taldeko ordezkarienak. Ondorioz, **udalaren osoko bilkurak gehiengoz**



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

erabaki du udal bulego teknikoaren eta kontratazio mahaiaren proposamena **onestea**; izan ere, proposamen horren bitartez, aukeratua izan da Lamiako-Txopoetako Barne Berrikuntza eta Birgaikuntzarako Plan Berezia (BBBPB) egin barik dagoen arloa hirigintza aldetik eta desjabetze sistemaren bitartez kudeatzeko administrazio emakidaren adjudikazioduna, betiere Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenarekin bat etorritz.

3.- HERRI JABARIKO ONDASUN BATEN BAKARREKO OKUPAZIORAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA KONTRATATZEKO LEHIAKETARI BURUZKO ERABAKI PROPOSAMENA; BAKARREKO ERABILERA HERRI BIDEAN KIOSKOA INSTALATZEAREN BITARTEZ EGINGO DA, LORE FRESKOAK SORTETAN SALTZEKO: 2004ko irailaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 659/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza, Hizkuntz Politika, Prestakuntza eta Enpleguaren Informazio Batzordeak emandako 121. irizpena, 2004ko irailaren 14koa, gai honi buruzkoa da:

Leioako Behargintzako zuzendariak herri jabariko ondasun baten bakarreko okupaziorako administrazio emakida kontratatzeke lehiaketa eraenduko duten Administrazio Klausula Berezien Pleguari buruzko proposamenaren eta beharrezko txostenaren berri eman du; izan ere, horren bitartez, Iparragirre etorbidean, José Ramón Aketxe plazaren aurrean, loreak saltzeko kiosko bat instalatuko da lau urteko epean, betiere alkatetzaren 2004ko uztailaren hogeita biko 541/04 dekretuak ezarritakoarekin bat etorritz.

Leioako Udalak herri jabaria okupatuko duten egituren egonkortasuna bultzatu nahi du; horrenbestez, behar-beharrezkotzat jotzen du legezko prozedura egokiak bideratzea, instalazioak gutxien-gutxienez lau urterako izan daitezen eta horiek beste urte birako luzatzeko aukera egon dadin.

Lore freskoak herri bidean saltzeko kiosko bat instalatuz, haren eraginpeko eremua merkataritza aldetik biziberritzeko asmoa dago; izan ere, kioskoa merkataritza gunearen osagai dinamizatzailea izango da, inguru horren hiri egokitzapen eta hobekuntza sustatuz, hiri ekipamenduak berrituz eta gaurkotuz eta lorearen salerosketa eta kultura ohiko kontsumo-gai modura bultzatuz.

Proiektu honen bitartez, gainera, gizarte interes bati eman nahi zaio erantzuna, nolabaiteko elbarritasun maila duten pertsonak lan merkatuan sartzea eta horien gizarteratzea bultzatuz. Horretarako, zerbitzuak behargin minusbaliatuen bitartez ematen dituen enpresa bat bilatu beharko da; izan ere, langile horiei maila pertsonalean garatzeko aukera emango zaie, lan merkatuan sartuko dituen kalitatezko lan egonkor baten bidez. Gainera, talde osoari beharrezko prestakuntza emango zaio, loreen salmentan lanbide gaitasun osoz jarduteko beharrezko ezagutza eta trebetasunak eskura ditzan.

Era berean, Bizkaiko Lore Saltzaileen Enpresa Elkarteak, 03-12-24ko eta 04-02-04ko idatzien bitartez (erregistroko 6143. eta 614. sarrera dutenak, hurrenez hurren), bere sasoian Loregarri S.L. enpresari (Minusbaliatuak Gizarteratzeko Enplegu Zentro Berezia) emandako baimenari buruzko informazioa eskatu zuen, herri bidean gune bat okupatu ahal izateko, lore sorta freskoak saltzeko kiosko bat instalatzearen.

Hezkuntza, Hizkuntz Politika, Prestakuntza eta Enpleguaren Informazio Batzordeak, egindako txostena aztertu eta gero, ondoko irizpena eman du: herri jabariko ondasun baten bakarreko



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

okupaziorako administrazio emakida kontratatzeko lehiaketa eraenduko duten Administrazio Klausula Berezien Plegua onesteko irizpena, hain zuzen ere; horretarako, Iparragirre etorbidean, José Ramón Aketxe plazaren aurrean, lore sorta freskoak saltzeko kiosko bat instalatuko da lau urteko epean; epe hori urterik urte luzatu ahal izango da beste bi urtez. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan xedatutakoa betez, gai hau udalaren osoko bilkurak aztertzeko ezarriko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko dekretua eman du. Horrela bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertu behar izango da.

PP taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honako hau adierazi du:

Plegu hauek onesteko erabakia hartuko dutela adierazi du, udalerraren erdian gaur egun dagoen jarduera bati jarraipena ematea delako; gainera, jarduera positibotzat hartzen dute arrazoi birengatik: lan munduan sartzeko zailtasun gehiago dituzten kolektiboek behar bat eskaintzen dielako eta herrigunea dinamizatzearen aldeko postura bat egiten delako. Horren inguruan aipatu zuen, plegu hauek onetsiz gero, jarduera mota honi eusteko ahaleginak egiten direla eta horri positibo deritzotela; beste alde batetik, jardueraren egokitasuna kontuan hartuta, mota honetako lanpostu gehiago sustatu behar direla uste dute, bai oraingo kokapenean bai eta udalerraren bestelako kokapen batzuetan ere.

Ilido horri jarraituz, batzordeari planteatu dio lanpostu gehiago egoteko neurriak jar ditzan; gauzak horrela, interesa duten enpresak ez dira mugatuko udalerrian eskaintzen den postu bakar hori aukeratzera.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

PPko bozeramaileak egindako proposamenari dagokionez, alkate jaunak adierazi du aurreko hiletan Loregorriko arduradunekin hitz egin dutela gunerik egokienak azter ditzaten, ez bakar-bakarrik ikuspuntu urbanistiko batetik ikusita, baizik eta hiri dentsitatetik eta erosketa ahalmenetik ere, eta beharrezko iradokizunak egin ditzaten.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak ondoko erabaki hau hartu du **aho batez**:

1.- Herri jabariko ondasun baten bakarreko okupaziorako administrazio emakida kontratatzeko lehiaketa eraenduko duten Administrazio Klausula Berezien Plegua onestea; izan ere, horren bitartez, Iparragirre etorbidean, José Ramón Aketxe plazaren aurrean, lore sorta freskoak saltzeko kiosko bat instalatuko da lau urteko epean; epe hori urterik urte luzatu ahal izango da beste bi urtez; beraz, luzapenak gehitzen bazaizkio, udal kontratuaren urte kopuru osoa gehienez sei urtekoa izan ahal izango da.

2.- Manuzko gainerako tramiteak betetzea, harik eta kontratua sinatu arte, hori barik ezin izango baita betearazpenari ekin, betiere adjudikazioaren eta kontratuaren kopia sartuz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

4.- EUSKARAREN ERAKUNDE AUTONOMOKO LANPOSTUEN ZERRENDA (LPZ) BERRIA BEHIN BETIKO ONESTEA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK EGINDAKO TXOSTENAREN ONDOREN: 2004ko irailaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 649/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubidearen Informazio Batzordeak emandako 86. irizpena, 2004ko irailaren 14koa, gai honi buruzkoa da:

Euskararen Erakunde Autonomoaren Zuzendaritzaren erabakiaren ostean, udalbatzak, 2004ko ekainaren 28an egindako osoko bilkuran, erakunde horretako lanpostuen zerrenda berria onetsi du.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5. artikulua eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 20. eta 21. artikuluek ezarritakoarekin bat etorriz, lanpostuen zerrenda hori Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali zitzaion, horren inguruko txostena egin zezan, betiere hizkuntz eskakizunei dagokienez.

2004ko irailaren 1ean (erregistroko 4849/04 sarrera zenbakia), Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beharrezko txostena igorri du; agiri horretan zehaztu du irakasleen lanpostuetan 4. hizkuntz eskakizuna agertu behar dela eta TG (teknikari gaitua) kodea, betiere derrigortasun data barik; aldi berean, administrari laguntzailearen hizkuntz eskakizun eta horren derrigortasun datarekin bat datorrela adierazten du txostenean.

Lanpostuen zerrendaren inguruan jasotako proposamena ondoko hauxe da:

SAILA/ DEPARTAMENTO eta lanpostuaren izena/ y nombre del puesto	Lanpostu kopurua/ nº puestos	Jarduna/ Reg. De dedicación	Taldea/ Grupo	Titulazioa/ Titulación	HE/ P.L.	Derrigorras un-data / Preceptivid d	Kontratu lotura/ Rel. contractual
Euskara teknikaria/ Técnico de euskera 1 Hutsik/ vacante (Behin-behinean betea/ provisional: Josu Esnaola Aranguren)	1	Osoa/ Completa	A	Lizentziatura/ Licenciatura	4	Epe betea/ vencida	Lan legepekoa / laboral
Euskara teknikaria/ Técnico de euskera 2 Hutsik eta betegabe / vacante y sin cubrir	1	Osoa/ Completa	B	Diplomatura	4	Epe betea/ vencida	Lan legepekoa / laboral
Zuzendaria/ Director 3 Jose Belmonte Fdez de Larrinoa	1	Osoa/ Completa	B	Diplomatura	4	Epe betea/ vencida	Lan legepekoa / laboral
Idazkari akademikoa/ secretario académico 4 Iñaki Rodríguez Urueta	1	Osoa/ Completa	B	Diplomatura	4	Epe betea/ vencida	Lan legepekoa / laboral
Irakasleak/ Profesores /as 5 M. Asuncion Lasarte Narbaiza 6 Jose Luis Liz Sirvent 7 Ana Isabel Alegria Jaio 8 Jose Luis Urain Larrañaga 9 Jone Miren Villanueva Zarraga 10 Ana Elordui-Zapaterietxe Exposito 11 Itziar Sinde Etxebarria 12 Hutsik (Behin-behinean betea/ provisional: Gori Hernaez Madariaga) 13 Hutsik (Behin-behinean betea/ provisional: Begoña Gutierrez	10	Osoa/ Completa	B	Diplomatura	4	Epe betea/ vencida	Lan legepekoa / laboral



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Anton) 14 Hutsik (Euskara Zerbitzuan dagoen Josu Esnaola Arangurenena; behin behinean betea/ provisional: Maite Abasolo Vega; el titular en puesto 1)							
Administ.-laguntza./ auxiliar administr. 15 Pilar Gutierrez Anton	1	Osoa/ Completa	D	Dagokiona / Propia	3	Epe betea/ vencida	Lan legepekoa / laboral

Barne Araubidearen Informazio Batzordeak bidezkotzat jo du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostenean proposaturikoa onestea; horren ondorioz, 1etik 14ra bitartean zerrendaturiko lanpostuei 4. hizkuntz eskakizuna eta TG (teknikari gaitua) kodea ezarriko zaizkie derrigortasun data barik; gauzak horrela, Euskararen Erakunde Autonomoaren lanpostu zerrenda berri hau udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipiniko da, betiere Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikulua eta EAeko herri administrazioetan euskararen erabileraren normalizazioari buruzko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 23. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko dekretua eman du. Horrela bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertu behar izango da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, Euskararen Erakunde Autonomoaren lanpostuen zerrenda berria onetsi du; zerrenda hori espedientean ageri da eta Barne Araubidearen Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio.

5.- MENDIBILE BASERRIA BIRGAITZEKO OBREN FINANTZIAZIOARI BURUZKO PROPOSAMENA: 2004ko irailaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 663/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak emandako 188. irizpena, 2004ko irailaren 22koa, gai honi buruzkoa da:

Mendibile baserria berritzeko obren finantziatorako premiaren berri eman da eta horren inguruan aipatu da obraren zenbatekoa 2.628.085 eurokoa izango dela; horrela bada, kreditu erreserbak daude: 2002ko 441.667,01 euro, 2003ko 1.234.522,98 euro eta 2004ko 499.592,74euro; horrenbestez, obra finantzatzeko falta den zenbatekoa 452.292,27 eurokoa da.

Era berean, udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren berri eman da; horren arabera, lurzorua ondu publikoei buruzko ekainaren 29ko 20/1998 Legearen 7.c. artikulua aplikatuz, 2001 eta 2003ko kreditu erreserbak, guztira 452.292,27 euro, erabili daitezke ondu urbanistikoa eskuratu eta hiri berriztapenak gauzatzeko, betiere Mendibile baserriaren konponketa lanen finantziatorako.

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak bidezkotzat jo zuen Mendibile baserria berritzeko obren finantziatorako proposamena egitea; horretarako, ondu urbanistikoa



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eskuratu eta hiri berriztapenak gauzatzeko 2001 eta 2003ko urteetako kreditu gerakinak erabiliko dira, guztira 452.292,27 eurokoak.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko dekretua eman du. Horrela bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertu behar izango da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia jaunak honako hau adierazi du:

Honen inguruan adierazi du gai honen ibilbidea luzea dela eta ez zaiola obra honen kontua gustatu. Era berean, aipatu du azkenean Mendibile jatorrizko izenari eutsi zaiolako pozten dela, baina beraren ustez finantziario proposamenak arazo larria du, hiri ondarea eskuratu eta berritzeko 2001 eta 2003ko gerakinak erabiltzea, hain zuzen ere; hori negatiboa iruditzen zaio urte horietan diru horren bitartez egin beharreko hainbat jarduketa izan zirelako. Beraren iritziz, Mendibile baserriaren lurraren egoeratik sortutako gainprezioa beste era batera bilatu behar zen eta ez ziren alde batera utzi behar urte horietan ziur aski egin beharreko hainbat gauza. Ildo honi jarraituz, finantziario formula ez zaio egokia iruditzen eta, hori dela eta, kontrako botoa emango dute.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemeretzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAko zinegotziarena. Era berean, kontrako boto bi izan dira, EB-Berdeak taldeko ordezkariak. Ondorioz, **udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du** Mendibile baserria berritzeko obraren finantziario proposamena onestea; horretarako, ondare urbanistikoa eskuratu eta hiri berriztapenak gauzatzeko 2001 eta 2003ko urteetako kreditu gerakinak erabiliko dira, guztira 452.292,27 eurokoak, betiere azaldutako baldintzen arabera.

6.- "EROSKI SDAD COOP." SOZIETATEAK HIPERMERKATUARI LOTUTAKO APARKALEKUAN (IPARRAGIRRE ETORBIDEA, 110) INSTALATU NAHI DUEN ERREGAI-HORNITEGIAREN OBRA ETA JARDUERA LIZENTZIEI BURUZ ALKATETZA-UDALBURUTZAK EGINDAKO JARDUERAK BERRESTEA: 2004ko irailaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 628/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumenaren Informazio Batzordeak emandako 144. irizpena, 2004ko irailaren 15koa, gai honi buruzkoa da:

Udal zerbitzu teknikoek ondoko aurrekari hauen berri eman dute:

- Irailaren 8ko 706/00-O.T. dekretu bitartez eta TGBean 00-10-31n hartutako 1011. ebazpenarekin bat etorritik, Leioako Udalak Eroski Sdad. Coop. erakundeari Iparragirre etorbideko 110. zenbakiaren ondoko hipermerkatuari lotutako aparkalekuan erregaien hornitegi baten instalazioak egiteko lizentzia ukatu zion, horrek hirigintzari buruzko arautegia betetzen ez zuelakoan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Eroski Sdad. Coop. enpresak administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri eta Administrazioarekiko Auzietarako Bilboko 2. Epaitegiak epaia eman zuen 2002ko ekainaren 4an, udalaren xedapenak berretsiz eta ondorioz merkataritza enpresa horri eskabidea ukatuz.
- Eroski Sdad. Coop. enpresak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen gorago aipatutako epaiaren kontra; horrela bada, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salak epaia eman zuen 2002ko azaroaren 27an, enpresak jarritako errekurtsua oniritziz; izan ere, ondasun eta zerbitzuen merkatuetan lehiakortasuna sendotzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 23ko 6/2000 Errege Dekretuaren arabera, merkataritza zentroetan erregaien hornitegiak jar zitezkeen, aprobeixamendua edo eraikigarritasuna zenbatu barik; beraz, epaiak Leioako Udala behartu zuen eskabide espedientea tramitatzera.
- Apirilaren 22ko 340/04-O.T. dekretu bitartez, beharrezko espedientea tramitatu eta gero, toki administrazio honek instalazioa ukatu zuen ibilgailuen trafikoaren gaineko eragin negatiboagatik, betiere horretarako egindako azterlanean oinarrituz.
- Eroski Sdad. Coop. enpresak 340/04-O.T. dekretuaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zuen Administrazioarekiko Auzietarako Bilboko 3. Epaitegian. Leioako Udala alderdi interesatu modura bertaratuko da errekurtsu horretara, bere interesak defendatzearen.
- Aurreko lerroaldean aipatutako bide judiziala gorabehera, Eroski Sdad. Coop. enpresak Administrazioarekiko Auzietarako Bilboko 2. Epaitegiari epaiaren betearazpen tramiteari inkardinaturiko epai erabakia eskatu dio; izan ere, beraren ustez, lizentzia emanda dauka administrazioaren isiltasunagatik, betiere 6/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren arabera. Epaitegiak 2004ko uztailaren 12ko autoaren bitartez, Eroski Sdad. Coop. enpresak eskatutakoa zatiz onartu zuen, administrazio isiltasunaren aplikazioa ontzat ematean; hala ere, kalte-ordainen eskabideari gaitz iritzi zion. Leioako Udalak auto horren kontra gora jo du Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.
- Eroski Sdad. Coop. enpresak erregaien hornitegia eraikitzeko obrei ekin die.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumenaren Informazio Batzordeak ondoko jarduketak hauen bidez kotatuen aldeko irizpena eman zuen:

- Aurrekariaren edukiaren jakinaren gaiena dagoela.
- Alkatetzaren jarduketak aho batez berrestea; izan ere, informazio batzorde horren iritziz, Eroski Sdad. Coop. enpresak eskaturiko hornitegiak gorabehera handiak sortaraz diezazkioke inguru horretako ibilgailu trafikoari eta arrazoi hori nahikoa da lizentzia ukatzeko. Horrenbestez, Leioako Udalak beharrezko epaitegietara joko du, irizpide hori defendatzeko asmoz. (Une honetan 2004ko uztailaren 12ko autoaren kontra gora jotzeko errekurtsua eta 340/04-O.T. dekretuaren kontra jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsua).

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK horretarako egindako jarduketak.

PP taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honako hau adierazi du:

Gai honen inguruan hainbat zehaztapen egin nahi dituela adierazi du. Horrela bada, aipatu du, behin eguneko gaien zerrenda ikusi eta gero, edozelan ere eurek bat datozela gaia eztabaidatu zuen Hirigintza Batzordeak emandako irizpenarekin; izan ere, irizpen horren ariotan, alkatetzaren jarduketak berretsi ziren Eroski Sdad. Coop. enpresak eskaturiko hornitegiaren instalazioak ibilgailu trafikoari kalte egin diezaiokeelako eta hori nahikoa delako lizentzia ukatzeko. Hori guztiori dela eta, Leioako Udalak jarraibide hori defendatzeko beharrezko epaiketara bertaratu beharra dauka.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Horri dagokionez, batzordearen irizpena berretsi nahi dute, baina euren ustez eguneko aztergaien zerrendako izenburua haratago doa; izan ere, horren bidez, alkatetzak aurrera eraman dituen jarduketak zehatz guztiak batera berresteko asmoa dago. Euren aburuz, berrespen hori ez dagokio udalaren osoko bilkurari eta horregatik Hirigintza Batzordean esandakoa berretsi nahi dute.

Beste alde batetik, zehaztu nahi du batzordean puntu hau eguneko aztergaien zerrendan sartzeko aukeraz hitz egin zela, baina talde politikoez ez zutela euren jarrera argi utzi; horrela bada, gaia azkenean eguneko aztergaien zerrendan azaldu da, alkatetzaren ahalmenetan oinarrituz, baina batzordean ez da horren inguruko irizpenik eman. Horrenbestez, beraren iritziz, egokia eta beharrezkoa izango zen gaia talde politikoekin kontsultatu izana, nahiz eta bestelako taldeekin kontsultarik egin ote den jakin ez; eurekin, behinik behin, ez da kontsultatu ea puntu hau eguneko aztergaien zerrendan sartu behar zen, eta eurek jarrera argia dute osoko bilkurara ekarri daitekeenaren eta ezin ekar daitekeenaren inguruan.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

Lehenengo eta behin zehaztu du proposamena PSE-EE-PSOE taldeko José Manuel Toledo Cañamero jaunarena izan dela; izan ere, Hirigintzako Informazio Batzordean azken honek proposatu zuen puntu hau osoko bilkurara ekartzea; berak gaia kontuan hartuko zuela esan eta ondorioz eguneko aztergaien zerrendan sartzeari erabaki du.

Bigarrenez adierazi du eguneko aztergaien zerrendan agertzen den izenburua Hirigintzako Informazio Batzordearen irizpenaren hitzez hitzeko zatia dela eta beraz berretsi nahi dena Hirigintza Batzordearen proposamena besterik ez dela.

PSE-EE PSOE taldeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honako hau adierazi du:

Horren inguruan adierazi du batzordean esan zuena osoko bilkuran esan gura duela; izan ere, haiei egoki iruditzen zaie udalbatzak herritarrei jakinaraztea gasolindegia udalaren irizpideen aurka ari direla egiten, Leioako herritarrek eta Avanzada errepidetik pasatzen direnek kalteak jasan beharko dituztelako eta, gainera, horrek trafikoari eragingo diolako; beraz, zalantzak argitu behar dira txarto ulertuak saihesteko. Ideia da udalbatzak herritarrei jakinaraztea ez datorrela bat gasolindegia instalazioarekin, baina horren inguruko autoa onartu beharra daukala ezinbestean.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

Adierazi nahi izan du kasu honetan epaitegiaren auto bat dagoela, horrek Eroski Sdad. Coop. enpresari lizentzia eman diola eta alkateak auto hori ontzat eman eta betetzen duela orain egiten ari den moduan, baina orain planteatzen dela udalak, alkatetzaren bitartez, aurrera eraman duen guztia berrestea; horrela bada, PPko bozeramaileari adierazi dio, alkatearen jarduketak berretsi nahi ez badituzte, horretarako eskubide osoa dutela; edozelan ere, aipatu gura izan du osoko bilkurara ekarritako proposamena Hirigintzako Informazio Batzordean emandako irizpena besterik ez dela.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia jaunak honako hau adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Zehaztu du gaia aspaldi eztabaidatu dela batzordean eta talde politiko guztiei sekula ez zaiela positibo eta zuzena iruditu merkataritza zentroaren parkingaren erdian gasolindegia bat jartzea, aparkalekuaren zati bat galtzen zelako; gainera, parking horren instalazioa Eroskik merkataritza zentroa burutzeko egindako eskaintzaren zatia zen. Era berean, gasolindegia eraikuntzak ukitutako biztanleak daudenez gero, bai eta udalaren kontrako eraso pertsonalizatuak, alkatearen eta hainbat teknikariren aurka, orduan PSE-EE-PSOE taldeko José Manuel Toledo jaunak proposatu zuen osoko bilkurak gaia eztabaidatzea, gasolindegia eraikuntzak ukitutako herritarrek talde politikoen iritzia berri izan dezaten. Izan ere, udala ez dago instalazio horren alde eta legezko neurri guztiak ezarriko ditu eraiki ez dadin.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

Argitu nahi izan du espedientean ageri diren hainbat idazkitan azaltzen direnak esapide desegokiak direla eta ez, Informazio Batzordean aipatu bezala, eraso pertsonalizatuak. Jarraian zehaztu du puntu honen bitartez proposatzen dena ez dela autoa ontzat ematea, oso-osoa onartu beharra dagoelako, baizik eta alkatearen jarduketak berrestea, betiere Hirigintza Batzordean hartutako proposamenarekin bat etorritz.

EA taldeko Ernesto Ángel Trigueros S. Coloma jaunak honako hau adierazi du:

Adierazi du puntu honen alde egin nahi duela eta bere taldeak eskatuko duela herritarrei gaiaren berri emateko; argibideotan berretsi beharko da udalak oraindik ez dituela ekintzak eten eta horien bitartez udalaren jarrera defendatzen jarraituko duela.

EAJ-PNV taldeko Eneko Arruabarrena Elizondo jaunak honako hau adierazi du:

Horren inguruan adierazi du alkate jaunak azaldu duela epaitegiak gasolindegia inguruan emandako autoa beteko dela, baina Eroskik udalerrian aurrera eramandako prozesuari dagokionez hainbat adierazpen egin nahi ditu: berak ez duela Eroski hau ezagutzen, Eroski honek ez duela zerikusirik Leioan, Avanzadan, orain dela urte asko instalatu zenarekin; izan ere, orduko Eroski hori aitzindaria izan zen, lanpostuak sortzeko asmoz etorri zelako, nahiz eta aurkakoak ere izan, merkataritza txikiko lanpostu batzuk desagertuko zirela uste zutelako.

Aldi berean, aipatu du Eroski Leioara etorri zenean, aparkatzeko azalera zehatz bat ezarrita, orduko korporazioak hartutako legezko estandar, akordio moral eta jokabide batzuk betetz egin zuela; hortaz, beraren ustez, urteen poderioz, Eroskik aldarazi nahi ditu orduko korporazioak harturiko erabaki eta jokabideak.

Azkenik, adierazi zuen Eroskiri esan behar zaiola udalerrin honetara lehenengoz etorri dela instalatzera inork nahi ez duen enpresa bat; inguruko herritarrek ez dute nahi, ez Leioako Udaleko teknikariek ez herriaren ordezkariak diren Leioako Udaleko arduradun politikoek; izan ere, instalazio horren bitartez, Eroskik ez du enplegurik sortarazi nahi, eta lanpostuak suntsituko dituen beldur da. Horrela, zehaztu zuen arrazoi ugari daudela Eroskiri ongi etorria ez emateko: arrazoi teknikoak, trafikoaren aldetiko arrazoiak, arrazoi moralak eta lan arrazoiak; Eroski hori guztia daki baina ez dio ardura eta bere ustez ona da hori guztia Eroskiri esatea eta Leioako herritar guztiei.

PP taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honako hau adierazi du:

Zehaztu nahi izan du, Hirigintza Batzordean onetsitako testua onetsi nahi bada, batzordean azaldutako jarrera berretsiko dutela, baina euren ustez gai honi ez zaio heldu behar den moduan; izan ere, alkatetzak aurrera eramandako jarrera zehatza bultzatzeko mota honetako gai batean kontu eta



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

arreta handiagorekin jokatu behar zen eta, gaia osoko bilkurara ekarri baino lehenago, gainerako taldeekin kontsultatu; modu horretara Alderdi Sozialistak gai hau osoko bilkurara ekartzeko azaldutako jarrerari hobeto jarraituko zitzaion.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

Adierazi du oposizioko talde politiko bat kontuan hartzeko ahaleginak egin dituela, talde horrek gaia osoko bilkuran eztabaidatzeko eskaera egin ziolako; izan ere, gaia osoko bilkurara ekartzeko ekimena ez da berea izan eta, beraz, begirunez jokatu duela eskaera ontzat ematean.

PSE-EE-PSOE taldeko Susana González Rómulo andreak honako hau adierazi du:

Zehaztu du PPko bozeramailearen berbek harritzen dutela, gaia osoko bilkurara ekarri delako gainerako gaiekin egiten den bezala; gainera, puntu honetan Informazio Batzordearen aldeko irizpena dago, gairik gehienekin gertatzen den legez. Izan ere, hau ez da mozioen antzeko gai bat, horiek Informazio Batzordearen aldeko proposamena izaten ez dutelako eta osoko bilkuran zuzen-zuzenean ebazten direlako. Kasu honetan, PSE-EE PSOE taldeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak, gorago azaldutako arrazoiak direla eta, alkateari eskatu zion puntu hau eguneko aztergaien zerrendan sartzeko, osoko bilkuran onesteko, EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak eta EAJ-PNV taldeko Eneko Arruabarrena Elizondo jaunak azaldu duten moduan; horren helburua zen Leioako herritarrei argi eta garbi jakinaraztea udalak ez duela zerikusirik izan gasolindegia instalatzeko erabakiarekin.

EAJ-PNV taldeko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

Gaiari dagokionez, adierazi du kasu honetan PPren aldetiko erru konplexua egon litekeela; izan ere, merkataritza zentroetan erregaien hornitegiak instalatzeko aukera Alderdi Popularraren gobernuak emandako 6/2000 Errege Dekretuaren ondorioetariko bat da; dekretu horren bidez, baimena ematen da hornitegiok aprobetxamendu edo eraikigarritasunaren aldetik zenbatu barik instalatzeko. Hortaz, udalei udalerrriak antolatze gaitasun_eta ahalmena kentzen zaie.

Aldi berean, berretsi nahi izan du lehenago ez kontsultatzeko arrazoia Hirigintza Batzordean gaiaren inguruan azaldutako adostasun zabala izan dela; izan ere, berak ez zuen inolako arazorik izango bozeramaileen batzar bat egiteko, baldin eta gaiari buruzko desadostasunik zegoela sumatu izan balu. Azkenik eta amaitzeko, adierazi du, korporazio-kideek eguneko aztergaien zerrenda izan dutenean, zehaztu ahal izan diotela batzordearen irizpenaren gaineko aldakuntzarik egin nahi zuten ala ez, eta hala izan balitz berak ez zuen batzartzeko arazorik izango, baina batzordearen irizpena aho batez eman eta oposizioko talde bateko proposamena egon denez gero, eskabide hori kontuan hartu baino ez da egin.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak **aho batez** erabaki du alkatetzaren jarduketak berrestea, Eroski S.Coop. enpresak Iparragirre etorbideko 110. zenbakiaren ondoko hipermerkatuari lotutako aparkalekuan instalatu nahi duen erregai hornitegien obra eta jarduera lizentziari dagokionez, betiere Hirigintza,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Garraio, Etxebizitza eta Ingurumenaren Informazio Batzordeak adierazi eta proposatu eta alkatetzak 2004ko irailaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitako terminoekin bat etorritz.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

7.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-07-24TIK 2004-09-24RA: Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta bat etorri da.

8.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Atal honetan ez da eskari ez galderarik egin.

Eta iluntzeko zortziak eta berrogeita hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,